

## » TELEGRAMA

Euskal afrobeat musikaren aitzindariak dira **Makulu Ken** eta Bilboko Hika atean ariko dira apirilaren 7an. Aukera paregabea *Kalè kalè* azken diskoko kantak zuzenean entzuteko **STOP** Antzerkia da, baina musika ere bai: **Ez dok hiru** taldeak **Euskal musikaren benetako (h)istoria** dakar Tolosako Leidorrrera. Apirilak 7, ez galdu! **STOP Etiopikoak** festibalaren edizio berri bat martxan da apirilaren 5etik 8ra arte Baionan: musika, dantza, mintzaldiak, erakusketak, filmak... Denetik izango da **STOP**

## » KONTZERTUA

## Eszena-sena



Montse Auzmendi

### Gasteizko XII. Kontzertu Handien Zikloa

AINHOA ARTETA

**Piano-jotzailea:** Rubén Fernández-Aguirre.**Kantagileak:** García Lorca, García Abril, García Morante, García Leoz, Xavier Montsalvatge eta Miquel Ortega.Gasteizko Principal Antzokia.  
Martxoaren 25a.Ainhoa Arteta Ibarrolaburu sopranoa  
(Tolosa, 1964).

Nire aspaldiko piano irakasleak, Mari Carmen Okariz tolosarrak hain zuzen ere, hauxe esan ohi zuen: "Hay que tener visión de escenario". Horrekin zer esan nahi zuen? Momentu horretan, agian, hamazazpi urteko neskatxa batek ez zuen gehiegi ulertzen horren esanahia, baina behin eta berriro errepikatzen zuen mantra horren barruan gauza asko zegoen: taula-gainean eduki beharreko jarrera, aristokratikoa; publikoa bereganatzeko hainbat baliabide landu beharra, eta behar den pasio, grazia eta komunikazioa atera behar zirela interpretaziotik. Laburbiduz, eszenatokira

igotzen dena izar bat bihurtu behar dela artista bat izateko. Esan bezala, nire irakaslearen xelebrekeria bat iruditzen zitzaidan aipatzen zuen "eszena-sen" hori, besterik gabe. Gaur egun, ordea, badakit hori guztia behar-beharrezkoa dela publikoaren arreta eta mirespena lortzeko. Tesi hau jarraituta, aitortu behar dut Ainhoa Arteta benetako artista dela, behar diren erreminta guztiak menderatzen baititu publikoa poltsikoan sartzeko, zailtzarik gabe.

Gasteizko Kontzertu Handien XII. Zikloan eskainitako kontzertuaren egitaraua ez zen, berez, ni gehiegi erakartzen nauena, baina, tira, Ainhoaren eskutik, mundiala, kaskarra izan arren.

Kanta espainiar zaharrak, García Lorca eta Xavier Montsalvatgeren testu eta musikarekin, kanta labur eta nahiko ezagunen sorta bat dira. Batzuk nahiko ondo egokitzen dira Ainhoaren ahotsera, eta beste batzuk, zoritxarrez, ez. Saioaren lehen zatia gatzik gabea suertatu zen. Bigarreanean, ordea, Ainhoaren esentziak disfrutatu genituen, argilun batzuekin. Lorcaren *Anda Jaleo*, polita, baina oso iluna Artetaren ahotserako. Montsalvatgeren *Umeentzako abestiak*, motz eta bereziak, distiraz interpretatu zituen sopranoak. Eta onena, dudarik gabe, Miquel Ortegaren *Canciones* zikloa, non Artetak espresibitate ikaragarria hedatu zuen. Benetan politikak.

Halere, artista, eszena-sena duena, propinetan ikusi genuen. Gustura utzi zuen publiko gasteiztarra. Ainhoaren lehenengo mezenasetako bati, Gasteizko andre bati, dedikatu zion lehendabiziko bisa, Guridiren kanta bat. *Haurtxo polita*, noski, abestu zuen, bere izeba bati (Gasteizen bizi dena) dedikatuta. *Tosca* operaren *Vissi d'arte* aria ere interpretatu zuen, zoragarria. Eta amaitzeko, *La tempranica* zartzuelako *La tarantula* kantarekin erakutsi zuen Artetak edozertarako prest dagoela. Piano azpitik pasatzeko, lurrean bueltak emateko. Eszena-sena. ■